

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea zabor bilketaren zerbitzu publikoaren tasa arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeari

Udalbatzak, 2024ko urriaren 17an balio osoz egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea zabor bilketaren zerbitzu publikoaren tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari.

Jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsi da hasierako onespeneren erabakia.

Bat etorritoki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 19.4 artikuluan xedatutakoarekin, ordenantzaren testu integratua argitaratzen da.

Administrazio bidea amaitzen duen behin betiko onespeneren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritoki Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.1. artikuluetan xedatutakoarekin. Horrek ez du eragotziko egoki jotzen den beste edozein errekurtsio aurkeztea.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2024ko abenduaren 11

Alkate-lehendakaria  
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA

### ZABOR BILKETAREN ZERBITZU PUBLIKOAREN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

#### I. XEDAPEN OROKORRAK

##### 1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan ezarritakoari jarraituz, ordenantza honen arabera udalak zaborrak biltzeko zerbitzuarengatik kobratu beharreko tasa ezarri eta eskatuko du. Ezarri beharreko tarifak eta tarifa horiek ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

##### 2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzen da.

## II. ZERGA EGITATEA

**3. artikulua**

Tasaren zerga gaia zaborra eta hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzua eskaintzea da. Zabor biltzeta honako leku hauetan egingo da: jarduera industrialak, merkataritzakoak, profesionalak, artistikoak eta zerbitzuetakoak egiten diren etxebizitzetan, ostatuetan eta lokaletan edo establezimenduetan.

## III. SUBJEKTU PASIBOA

**4. artikulua**

1. Subjektu pasibo zergadunak dira Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta entitateak, baldin eta zerbitzua eskaintzen den lekuetan, plazetan, kaleetan edo bide publikoetan dauden etxebizitzak eta lokalak okupatzen edo erabiltzen badituzte, direla horien jabe, gozamedun edo prekarioko erabiltzaile.

2. Dena dela, zergadunaren ordezeko subjektu pasiboa izango da etxebizitza edo lokalaren jabea, eta horrek, hala badagokio, ordaindutako higiezinaren kuotak haien erabiltzaileei ordainarazi ahal izango dizkie, horiek izanik zerbitzuaren onuradunak.

## IV. ZERGA OINARRIA

**5. artikulua**

Zerbitzua zein unitatetan gauzaten den, hura da zerga oinarria, tarifyan ezarrita dagoenaren arabera.

## V. KUOTA

**6. artikulua**

Kuota zehazteko, aurreko artikulua araberan ateratzen den oinarriari aplikatuko zaio dagokion tarifa, eranskinean jasotako artetik.

## VI. SORTZAPENA

**7. artikulua**

Zerbitzua eskaintzen den unetik bertatik sortzen da zorra eta, beraz, tasa ordaintzeko betebeharra. Zerbitzua nahitaez eskaini behar denez gero, zergadunek erabili eta tasa ordaindu behar duten etxe eta lokalak dauden kale edo tokietan zaborra biltzeko udal zerbitzua ezarrita eta abian den unetik bertatik ordaindu beharko dute.

## VII. ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

**8. artikulua**

Zergen arau hausteen kalifikazioari dagokion guztian, bai eta horiei kasuan-kasuan dagozkien zehapenen gainean ere, jarraituko zaio Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari.

## VIII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta haren eranskinak 2024ko urriaren 17an egindako ohiko bilkuran aldatu ziren, ALHAOn argitaratzen diren egunetik aurrera izango dute indarra eta hala izaten jarraituko dutea, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

**I. ERANSKINA**  
**2025EKO TARIFAK**

<b>EPIGRAFEA</b>	<b>2025EKO TASAK</b>
Etxebizitzetako zaborra	140,78 €
Dendetako eta jatetxeak, tabernak, hotelak eta egoitzak ez diren lokaletako zaborra	228,84 €
Jatetxe, taberna, hotel eta egoitzetako zaborra	839,09 €
Landetxe, landa apartamentu, eta abarretako zaborra	305,13 €
1.000 m <sup>2</sup> arteko enpresetako zaborra	911,65 €
1.000 m <sup>2</sup> baino gehiagoko enpresetako zaborra	1.452,56 €

Azalpen oharra: higiezin berean erabilera bat baino gehiago badago aldi berean, tasa bakarra aplikatuko da; hain zuzen ere, aplikatzekoa den tasarik handiena.

**DIRUBILKETA ALDIA:**

– Lehenengo erdia abuztuan eta bigarrena eta azkena abenduan.

**II. ERANSKINA**

2025etik aurrera (hori barne), eta urtero, eguneratu egingo dira I. eranskinean jasotako tarifak.

Udalak, 2024ko urriaren 17ko ohiko osoko bilkuran, eman zion hasierako onespena eranskin hau aldatzeari, eta iragarki taulan eta ALHAOn argitaratu zen, 30 egunez. ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea edo indargabetzea onartzen den arte.